

## JOANNE KATHLEEN ROWLING.

D EREDUA, 6. MAILA, AZALPENA.

Testuak 1.008 hitz ditu

LAGINA: 4 ikastetxe, 6 ikasgela, 102 ikasle.

**Testua:** Autobiografia da. Luzea eta konplikatua ematen bazuen ere, ez du zailtasun berezirik izan. Hamaika galdera egin ziren, horietatik 4k berariazko informazioa bilatzea zuten helburu; 1k, testua bere osotasunean ulertzea; 4k, interpretazio bat garatzea; eta 2k, testuaren edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa egitea.

**Emaitza:** Batez besteko puntuazioa **6,44** izan da.

Galdera bakoitzean erantzun egokia eman zuten ikasleen ehunekoa:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
65,69	94,12	52,94	78,43	84,71	83,58	46,08	44,07	76,57	83,33	42,16

**Zuzenketak:** Erantzunen formatua batu egin da. Izenburua argiago jarri da. Zazpigarren galderan ikasleek zailtasunak izan dituzte ulertzeko "kontrajarritako sentimenduak" zer diren. Azalpena luzatu da ulermena errazteko. 8 hitzen Hiztegia jarri da.

### Ondorioak:

Aplikazioa egin ondoren, probak 11 galdera izango zituela erabaki zen.

Galdera horiek hurrengo trebetasun hauei dagozkie:

1T (informazioa bilatzea)	G1, G3, G4, G5
2T (testua bere osotasunean ulertzea)	G10
3T (interpretazio bat garatzea)	G2, G6, G7, G11
4T (edukiaren edo formaren gaineko hausnarketa)	G8, G9

Puntuatu nahi izanez gero, galdera bakoitzaren balorazioa honakoa izatea proposatu zen:

G1	G2	G3	G4	G5	G6	G7	G8	G9	G10	G11
0,5	0,5	1	1	1	0,5	1,5	1,5	0,5	1	1

Gutxienezko puntuazioa: **5**

Puntuazio horretatik behera irakurriaren ulermena ez da ontzat joko.

Aztertu egin beharko da zein galderatan egiten duen hutsa eta zein trebetasun diren landu behar direnak.